

4K DESKODETZAILEAREN AGINTE UNIBERTSALA

Kontrolatu zure telebista eta deskodetzailea aginte bakar batekin.

Zure **4K deskodetzailearen** urrutiko **aginte unibertsalak** aukera emango dizu deskodetzailea eta telebista batera kontrolatzeko.

Aginteak bi argitxo ditu goiko partean. Tekla bat sakatzen duzunean argi **laranja** pizten bada, seinale agintea **4K deskodetzailea** kontrolatzen ari dela. Argi **berdea** pizten bada, berriz, telebista kontrolatzen ari da.

Lehenespenez, aginteak **4K deskodetzailea** bakarrik kontrolatzen du. **Telebistarekin erabili ahal izateko, agintea konfiguratu egin beharko duzu aurrez.** Oso erraza da; hiru urrats hauek egin behar dituzu, besterik ez:

- 1** Sakatu  **botoia** 3 segundoz, argi **laranja**  bi aldiz keinu egin arte.
- 2** Sartu zure telebista-markari dagozkion lau digituak (begiratu taulan). Hamar segundo dituzu kodea sartzeko. Zuzen sartzen duzunean, argi **berdeak** bi aldiz egingo du keinu.
- 3** Bukatzeko, luze sakatu  **standby** botoia, telebista itzali arte. Itzaltzen denean, sakatu  botoia aldaketak grabatzeko. Dena ondo badago, argi **berdeak**  bi aldiz egingo du keinu.



0010	LG
0011	SAMSUNG
0012	SONY
0013	PHILIPS
0014	PANASONIC
0015	TOSHIBA
0016	NEVIR
0017	HISENSE
0018	BLUSENS
0019	AIRIS
0020	BLAUPUNKT
0021	SANYO
0022	SHARP
0023	GRUNDIG
0024	HITACHI
0029	BESTE MARKA BATZUK

OHAR GARRANTZITSUA!: aginte unibertsalek telebisten funtzionalitate ohikoenetarako teklak soilik dituzte. Baliteke aginte unibertsalek ez duten funtzionalitate bereziren bat izatea zure telebistak. Hala bada, telebistaren agintea erabili beharko duzu.